

HAUR ETA GAZTE LITERATURA HEZKUNTZAN

Arrate Egaña



1. HAUR ETA GAZTE LITERATURA AZKEN URTEOTAN

Gerra Zibilaren ondoren Haur eta Gazte Literatura, zentsura zela medio, oso murrizta izan zen, beste kultur arloetan gertatzen zen bezala. Literaturaren ezaugarriak oso mugatuak zeuden, bai forman eta bai edukinetan, ipuinak katolikoak edo tradizionalistak ziren batez ere.

Estatuan, adibidez, horrelako adibideak aurki ditzakegu: **Marcelino pan y vino** (Euskal Herrian itzuliko zen obra erlijiosoak, *Ardo eta ogi Martxelin*), eta kalitate hobegoko **Celia** edo **Antoñita la Fantástica**.

Zenbait liburu argitaratuko dira euskaraz, atzerrian (Iparralde, Argentina eta Guatemalan besteak beste) edo klandestino moduan, izkutaturik. Hauek ere erlijiosoak dira gehien bat edo aberriari buruzkoak, folklorea franko erabiliz, adibidez **Haurren meza**, **Azkueren ipuinak**, **Julene Azpeitiarenak**,... eta itzulpen bat edo beste agertuko da (**Platero eta biok**).

Europar bitartean, genoroko zenbait lan oso moderno sortzen da, Saint Exuperyren **Printze txikia** (1943) edo Astrid Lindgrenen **Pippi Kaltzaluze** (1945). Horrelako ekoizpenek aldaketa garrantzitsuak ekartzen dituzte.

Frankismoa bukatzerakoan izugarrizko mugimendua sortzen da Estatuan: Katalunian, Galizian eta Euskadin (60 hamarkadan hasi ziren ikastolak eta beraiekin batera ipuingintzaren suspertzea).

Marrazkiek garrantzi oso handia hartzen dute (EEBBetan Haur Literatura marrazkilarien eskutik berreskuratu zuten) eta gaiak anitzak izaten dira: familia, gai sozialak, nekazal

munduaren amaiera, umorea,... Forma ere aldatzen da, hizkuntza adibidez, haurri hurbiltzen zaio, ironia ageri da, pertsonaiak errealistagoak dira, narratzailea aldatzen da,...

Euskal Herrian euskeraren alde zenbait mugimendu sortzen dira (Bai euskarari, Ibilaldiak) eta haurrentzako aldizkariak kaleratzen dituzte (Kili-Kili edo Ipurbeltz). Giroa, beraz, oso ezberdina da. Idazle asko hasiko dira haur eta gazteentzat idazten; adibidez, M^a A. Landa, B. Atxaga, A. Lertxundi, J.A. Ormazabal, Txiliku, etb. Atzerriko autore inportanteen itzulpenak ere argitaratuko dira: C. Nosslinger, G. Rodari eta beste asko.

80. hamarkadan "boom" bat jazotzen da. Haur eta Gazte Literaturak genero guztiak lantzen ditu: fantasia, errealismoa, zientzia fikzioa, abenturak, poliziakoak, errealismo kritikoa, etb.

Komikigintzan ere aurrerapauso itzelak ikusten dira, eta pixkanaka zer edo zer ateratzen da antzerki arloan eta poesian.

Itzulpen asko egiten dira, klasikoak (Carroll, Perrault,...) eta modernoagoak (P. Härtling, R. Dhal, A. Martin, M. Grippe, G. Durrell,...).

Argialetxeek interesa erakusten dute literatura mota honetan, onuragarria suertatzen baita (Elkar, Erein, Pamiela,...) eta kalitatezko autore berriak agertzen dira: Zubizarreta,

Elexpuru, Igerabide, Mendiguren Elizegi, Iturralde, Oiartzabal, Lopez Gaseni, Añorga, etb.

Eskaintza zabala eta ona daukagu.

Gainera, gaur egun sekulako arrakasta izaten dute ipuin kontalariak, bai haurrentzat eta gero eta gehiago helduentzat.



2. LITERATURA HEZKUNTZAN

Hizkuntza bera lantzen denean horrelako materialetan ez da arazo handirik sortzen: arlo hau instrumentala da eta oinarritzko lau trebetasunak landu behar dira: entzutea, mintzatzea, irakurtzea eta idaztea.

Trebetasunen erabilpenaren gainean, zenbait gogoeta egiten da: testuaren ezaugarriak, morfosintaxia, etabar.

Literaturari dagokionez, berriz, arazo gehiago dago.

Azkeneko urteotan eta plan berriak direla eta, esan ohi da Literatura desagertzeaz dagoela, hori ordea ez da egia. Literatura derrigorrezkoa da Haur Hezkuntzan, DBHn eta Batxilergoan, aldatu egin dena tratamendua da.

Literaturari buruzko edukinak eta datuak ematen dira, baina testu literariotik abiatuta eta komunikaziorako bide berezi bat bezala, literaturaren beraren ezaugarri eta balore propioekin.

Batez ere, **testu** literarioa bera eta hizkuntza literarioa landuko dira, ahaztu gabe hala ere edozein obra literario ingurune sozio-kultural zehatz batean sortzen dela, kultur korronte baten barruan dagoela, eta abar.

Ikasgeletan testu literarioa irakurri, interpretatu eta ekoiztu egiten da. Alde teorikoek mailak aurreratzen diren neurrian hartzen dute garrantzia.



Literatura ez da desagertu, baina **ikuspuntu** ezberdin batekin lan-tzen da; ez dira irizpide historizista eta formalak erabiltzen, literatura ez baita historia, ezta ikasleak filologoak ere. Orain enfoketarik komunikabotik aztertzen dira testuak, bertan adierazten dena, testuinguruaren eragina eta halakoak.

Dena den, gai hau ez da erraza eta irakasle guztiok ez daude ados printzipio hauetan. Bakoitzak aukeratu beharko du **gaitasun literarioa** lortzeko zein estrategia aukeratu (70. hamarkadan sortu zen kontzeptu hau, baina ez zen atera ikuspengi linguistikotik)

Metodo ugari dago gaitasun hau garatzeko: betiko eskola magistrala, literatur tailerrak -berriagoak-, proiektuak, sekuentziazio egoki bat antolatuz (gaika, generoka,...), etb.

Helburua hori izango da nolahi ere, gaitasun literarioa bereganatzea, bai irakurtzeko eta bai ekoizteko, idazteko.

Gaur egun material literarioak sortzerakoan TESTU LITERARIOTIK abiatu egin behar da. Testu hauek esanguratsuak izan behar dira eta ardaztuta dauden materialen planteamenduarekin bat etorri (gaiagatik edo beste elementu batzuegatik). Hortik hasten da beste aspektu batzuen ikasketak: testua bera, testuaren testuingurua, osagai linguistikoa, generoa, ...

Aukeratzen diren testuak **errealak** izaten dira eta **anitzak** (gazte eta helduen literaturatik hartuta, autore eta garai ezberdinetakoak).

Literaturaren horrelako edukinak osatzeko planteatzen da **IRAKURKETA**.

Batzuetan aholkatzen edo gidatzen dira irakurketak; bestetan edozein liburu irakurtzea proposatzen da: helburua irakurtzea da, eta gustura irakurtzea.

Hau ez da **ikasi** behar den beste arlo bat, bere ordu propioak ditu eta eskolatik kanpo ere aritzen da.

Pentsatzen dugu eskolaren eginbeharra hori dela, **irakurzaletasuna piztea**.

Horretarako iharduera zehatz batzuk egin daitezke: liburuaren eguna antolatu, transposizioak -hau da, irakurritakoa beste euskarrietan adieraztea: marrazkietan, muraletan, dramatizazioetan...-liburutegia dinamizatu, azaldu, konpartitu edo komentatu irakurri egin dena egoera komunikatibo batean, beste hedabideak erabiliz, etb.

Baina bi eginbehar daude oso garrantzitsuak irakurketarekin asmatzeko:

* Prozesua, irakurketarena, ahalik eta gehien **personalizatzea**, hau da: haurren nortasuna ezagutu, gustuak, arazak, ...aholkua emateko.

* **Testu egokia** aukeratzea: errealak, anitzak, ulergarriak eta edukin berriak gehitu ditzakeena.

Honetaz gain, kontuan eduki behar da irakurzaletasuna eta ohitura indartzearekin batera, beste helburu bat dator-kigula: **disfrutatzearena**, eta **tresnak** ematearena gozamen hau gauzatze-ko.

Idea hau ere 70. hamarkadan sortu zen.

Irakurtzeko ohitura eta gustua bultzatzea gure lana izateak ez dakar inongo zalantzarik; dudak ordea **ebaluazioarekin** sortzen dira.

Literatura edo **testu literarioak**, klasean aztertzen diren bezala, ebaluatu daitezke, estrategiak ematen dira horrelako testuak komentatu ahal izateko eta **Diseinuek** ebaluazio-irizpideak ere ezartzen dituzte.

Baina **zer gertatzen da irakurketekin**, literatura ikasteko aitzakiak ez direnekin? Ebaluatu, neurtu edo behatu egin behar dira?

Esan dugu, hasiera batean, ikasleek irakurriko dutela **irakurtzeko** -nahiz eta gero beste etekin batzuk ateratzen-, **zaletasuna suspertzeko** -irakurlea irakurtzen eratzten baita-,

eta jakina, **gozatzeko**, hori da eta bestearekin batera helburu nagusia.



Irakasleen artean **eztabaida** latzak eta aburu ezberdinak topa ditzakegu: batzuk ebaluazioaren **alde** daude fitxen edo antzeko ariketen bitartez; beste **batzuek** berriz, irakurketa ebaluatzen bada, irakurtzeko **zaletasuna** galtzen dela diote, beste eskolako ariketa bat bezala hartzen delako, eta ez gozamenerako.

Zenbait materialetan ez da irizpide argi bat hautatu: fitxak eskaintzen dira, norbaitek nahi baditu erabiltzeko, nahiz eta erreserba handiarekin aurkeztu. Eta fitxa hauek oso pertsonalak izaten dira, aburuak jasotzen dituzte, inpresioak, eta derrigorrezko datu batzuk (autorea eta izenburua, adibidez). Dena den irakurketaren ebaluazioaren arazoari ez zaio oraindik irtenbiderik eman.

1. Zergatik haur eta gazte literatura?

Testu **literarioak** irakurtzea da helburua; izan ere, aukera ezin hobea iruditzen zait. Arrazoi asko daude, baten bat agertu da jada:

-Testu literarioak **aberatsak eta aberasgarriak** dira, linguistikoki eta edukinetan, emozioak, pentsamenduak, eta jarre-
rak transmititzen baitituzte,

-**eredutzat** har daitezke bakoitzaren lanak ekoizterakoan, horrela planteatzen da literatur tailerretan, adibidez,

-**fikziozko munduak** jorratzean bizitzarako baliogarriak diren zenbait aspektu lantzen dira, proiektzioak eta inter-

pretazioak, esate baterako, teorikoek diotenez (horretan hasi ziren psikoanalistak Iratxo ipuinek bizitzarako zituzten balioak aldarrikatzen...)

Baina, zergatik haur eta gazte literatura?

Dauden arrazoi guztien artean, bi azpimarratuko nituzke:

1. Haur eta gazteek testu literario horiek **hurbilak** sumatzen dituztelako, ulergarriak dira hizkuntza eta edukinen aldetik, eta gainera ezagupen berriak aurkitzen dituzte bertan.

2. **Literatura** da, hau da, kalitatea bermatuta dago. Gaur egun eta hemen, kalitatezko liburuak aurkitzen ditugu, bai hemengo idazleek egindakoak, bai itzultzen direnak.

Irakasle bezala, gazte liburuekiko esperientzia **instituetan** ona izan da. Batzuetan libururen bat aurkitu dugu desegokia (txarra, infantila,...) edo ikasleren batek liburu "normala" eskatu du...Baina **orokorrean** gazteentzako liburuak -liburu onak izanda- funtzionatzen dute.

Bestalde, eta ama naizen partetik, haurrentzako ipuinak oso egokiak iruditu zaizkit. Aipatutako abantailaz gain, testu literarioen bitartez, **harremanak** eta **afektibitatea** lantzen direla uste dut.

Hori bai, kritikoa zorrotzak dira haurrak eta aspergarria bada istorioa bi minututan beste zer edo zer ari dira egiten edo lokartzen dira.

BIBLIOGRAFIA

Textos, 4 zk.
"La educación literaria"
VV. AA. (Lomas, Colomer, Eagleton,...)

Textos, 9zk.
"Las otras literaturas"
VV. AA. (V. Moreno, Lomas,...)

La literatura infantil vasca
CALLEJA, S., MONASTERIO, X.
Universidad de Deusto
Bilbao, 1988.

Literatura infantil y juvenil
A. NOBILE (+ COLOMER, T.)
Morata, S.A. (MEC)
Madrid, 1992.

Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia
ETXANIZ, X.
Pamiela
Iruña, 1997.

Haur eta gazte literatura
ETXANIZ, X.
Iruña, 1997.

Bernardo Atxagaren irakurlea
OLAZIREGI, M.J.
Erein
Donostia, 1997.

Morfología del cuento
PROPP, V.
Fundamentos
Madrid, 1987 (7ª edición)

Teoría de la Literatura Infantil
CERVERA, J.
Mensajero-Deusto
Bilbo, 1992.

El psicoanálisis de los cuentos de hadas
BETTELHEIM, B.
Crítica
Barcelona, 1977.